

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Alli kontseilariak azpimarratu du nazioarteko lankidetzaren bidez iparraldeko herrialdeek ere ikasi egin dezaketela

Gaur goizean Madrilén izan den Medicus Mundiren osasunerako eskubide unibertsalari buruzko jardunaldi batean parte hartu du.

Martes, 01 de octubre de 2013

Íñigo Alli Gizarte Politiketako kontseilariak, gaur goizean, azpimarratu du nazioarteko lankidetzaren bidez datzala soilik garapen bidean diren herrialdeei laguntzean, herrialde horietatik ere ikasten dela. "Hegoaldean ikasitakoa iparraldean ere erabilgarria da, are gehiago gure egoera hauskor bihurtzen denean bizi dugun krisi ekonomiko, politiko eta etikoagatik", esan du.



Ezkerretik eskuinera: Alli kontseilaria, Robles eta Revilla jardunaldian egin duten mintzaldian.

Alli kontseilariak egin ditu adierazpen horiek ["50 años trabajando por el derecho a la salud" \(50 urte osasunerako eskubidearen alde lanean, euskaraz\) jardunaldiaren barruan. Medicus Mundi erakundeak antolatu du Madrilgo Casa de América erakundearen egoitzan, eta lankidetzaren eta osasunaren Espainiako eta garapen bidean diren herrialdeetako adituek hartu dute parte bertan.](#)

Íñigo Allik egin duen mintzaldian, aitortu du kontu publikoetan egin behar izan diren doikuntzek Espainiako garapenerako lankidetzaren alor osoari egin diotela kalte. Hala ere, Nafarroako Gobernuak gai horren inguruan hartutako konpromisoa berretsi du: "Lehenago edo beranduago, gure ekonomiak hobera egingo du eta kide ditugun herrialdeetan garatzen ari diren prozesu ugarietara babesa eta laguntza ematen jarraitu ahal izango dugu".

Gizarte Politiketako kontseilariak gehitu du bere Departamentuak lankidetzaren bidez dezentralizatuaren aldeko apustua egingo duela "bizi-baldintzak hobetzen laguntzeko laguntzen efikazia-irizpideen bidez". Lankidetzaren bidez horren adibide gisa, Íñigo Allik [Nafarroako Medicus Mundik Bolivian, Guatemalan eta Perun aurrera daraman proiektua](#) aipatu du. Horren bidez, indigenen eta landa-inguruetako jendearen osasunerako eskubidea bermatzea da helburua. Ekimena Nafarroako Gobernuak finantzatu du 385.000 euro emanez aurreko hiru urteetan.

Alli kontseilariarekin batera izan dira Gonzalo Robles Kanpo Gaietarako eta Lankidetzarako Ministerioko Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako idazkari nagusia eta Enrique Revilla Espainiako Medicus Mundiko lehendakaria.

Jornada sobre el derecho a la salud

Medicus Mundi erakundeak 50. urteurrena ospatu du osasunerako eskubide unibertsalari buruzko hausnarketa egiteko jardunaldi batean. Jardunaldia lehen mailako arreta, osasun-langileak eta estaldura unibertsala bezalako gaiei buruzkoa izan da.

Gaur goizean Madrilen egin duten jardunaldian, "Claves para la transformación de los sistemas de salud en América Latina" (Latinoamerikan osasun-sistemak eraldatzeko funtsezko elementuak, euskaraz) izeneko liburua ere aurkeztu dute. Liburuan Medicus Mundi Bolivian, Guatemalan eta Perun garatzen ari den osasun-proiektu integral eta bateratuaren esperientzia jasotzen da. Proiektua Nafarroako Gobernuak, Espainiako Lankidetzak eta Europar Batasunak batera finantzatu dute.